

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati balio-proposameneko eskaintza ahalbidetzen diotenak, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea. Guk zerbitzu bat eskainiko dugun horretan baliabide garrantzitsuenak baliabide fisikoak eta baliabide intelektualak dira, hau da, online sare aplikazioa oso ongi egituratuta eduki behar dugu.

Hasteko, baliabide fisikoei erreparatuz sare infromatiko oso sendo bat behar dugu. Erabilera %100 autonomia den horretan, bezeroek beraien kabuz hartuko dituzte bizikletak, orduan bizikletak hartzeko puntuetan mekanismo elektroniko sendo bat jarri beharko dugu. Izan ere, QR baten bidez fitxatuko dute bazkideak gure aplikazioazioaren bidez eta ordainketa ere bertan egin behar da.

Gainera, zerbitzu bat eskainiko dugu baino hala ere banaketa puntu bat edo bizikletak uzteko lekuak kokatu behar ditugu. Hau da, etxola txiki batzuk jarri beharko ditugu herrietako puntu batzuetan eta hor egongo da gure enpresak eskainiko duen materiala, bizikletez gain, kaskoak edo bizikletaren mantenurako materiala, gurpilen puztugailua adibidez.

Bestetik, giza-baliabideen arloa enpresa guztietan garrantzi handikoa da, oraindik ez dugulako robotekin lan egiten. Horretarako enpresa txiki bat izango gara, sortzaileak izango gara langileak bere horretan eta informatikaz guk baino gehiago dakien norbait. Honetarako, enpresa guztiek bezala giza baliabideei dagokion sektore bat eduki beharko dugu.

Bukatzeko, finantza-baliabideen arloa, baliabide honek besteak bezain besteko garrantzia dauka, izan ere, enpresan honekin hasteko kapital inbertsio bat egin behar dugu, bizikletak, kaskoak, bizikletak uzteko tokiak, txartelen mekanismoa... baita ere enpresaren mantenua egiteko. Ondoren, behin enpresak garrantzia hartzen duenean dirua ondo kudeatzen jakin beharko da, ez da dirua ezer begiratu gabe inbertitu beharko datu guztiak oso ongi aztertu beharko dira, ez dugulako denbora luzean egindako lana pikutara bidali nahi.